



ERROIBARKO ALKATEAK JAKINARAZTEN DU:

Gure bailarako sute-arriskuaren aurreikuspenaren egoera ikusita,
(<https://www.navarra.es/es/prevencion-de-incendios-forestales#riesgo>)

Suteen arrisku oso handiko edo muturreko egoeretarako, EKAINAREN 16KO 222/2016 FORU AGINDUAK (LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAzioKO KONTSEILARIARENA, BASO-SUTEAK PREBENITZEKO LURZORU URBANIZAEZINEAN SUAREN ERABILERA ARAUTZEKO) honako hau adierazten du:

- Eremu ireki guztietan ezin izango da surik piztu, eta debeku horrek lurzoru urbanizaezin osoari eragingo dio. Debeku horretan sartzen dira komunikazio-bideetako atsedenekuak, bai eta jolaserako eta kanpatzeko guneak ere, horretarako prestatutako guneak barne. Debeku horren barruan sartzen da, halaber, espazio irekietako sua, hala nola aisialdiko baratzeak. (8. Artikulua)
- Debekatuta dago material piroteknikoa sartzea eta erabiltzea:
 - Lurzoru urbanizaezin guztian.
 - Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, jaurtiketa puntua zuhaitz, zuhaixka, sastraka edo belar-landaretzaz estalitako lursailetik 400 metro baino gutxiagora dagoenean (larreak edo belardiak eta nekazaritza-laborearen berezko landaredia barne, besteak beste).
 - Material piroteknikoaz gain, debeku honetan sartuko dira sua duten edo sutea eragin dezaketen puxika edo faroltxo hegalariai edo bestelako elementu hegalariai ere. (9. Artikulua)
- Debekatuta dago motordun ibilgailuak baso-pistetatik eta beste landa-bide batzuetatik ibiltzea, baldin eta, Estatuko Meteorologia Agentziaren informazio meteorologikoaren arabera, baso-sutearen arrisku-indizea muturreko mailakoa bada, 10. artikuluan adierazitako salbuespenetan izan ezik. (Ibilgailu ofizialak edo baimenduak) (10. Artikulua).
- Debekatuta dago mendietan eta mendien inguruan 400 metroko zerrendan kokatutako landa-eremuetan makinak eta ekipoak erabiltzea, baldin eta horien funtzionamenduak deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak sortzen baditu. (10. Artikulua).
- Era guztietako espazio irekietan ezingo da erromeria eta jai tradizionalak lotutako surik piztu, eta debeku horrek lurzoru urbanizaezin osoari eragingo dio. (11. Artikulua).

Suaren erabilerari buruzko araudiaren gaineko ohiko galderetarako, honako dokumentu hau kontsulta daiteke:

<https://www.navarra.es/documents/48192/25210680/FAQs+incendios.pdf/5671b369-d64f-7247-5430-b6216613ed63?t=1683733365514>

ADITZERA EMATEN DUT INTERESATURIK DAGOEN OROK JAKIN DEZAN

Erroibar, 2024ko abuztuaren 9a

ALKATEA